



0€

the balde

05

abuztua | iraila
august | september

coming up with the goods

ondasun pasiboak aktibo

05



azala / cover: recrea2

the balde

marzelo zelaieta 75
13. bulegoa
31014 iruñea
t. +34 948. 12.19.76

info@thebalde.net

publi@thebalde.net
m. +34 686.48.59.76

www.thebalde.net

argitaratzailea / publisher: eragin. komunikazioa eragin sll

editore / editor: iñigo martínez

zuzendari / director: césar ekisoain

zuzendari komertziala /comercial director: arkaitz billar

publizitatea / publicity: idoia artxanko

talde eragilea / promoters: koldo almandoz, arkaitz billar, césar

ekisoain, martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez, iñigo martinez

diseinua / design: martin etxauri, unai abarzuza, txuma vazquez

sonia beroiz, juan luis napal

itzulpenak / translations: smiley, miren etxenike

ale honetako kolaboratzaileak / collaborators this issue: kirmen

uribe, asier leoz, koldo almandoz, ibon salaberría, berta osés, maria

solana, itziar suárez, iñaki garro, borja peñeñori, peru almandoz,

teodosio sigüenza





ale honetako argazkilariak / photographers this issue: imanól amas,

paco peregrín, uxue montero

ale honetako komikia / comic this issue: txol?

inprimategia / printed at: espacografic

lege gordailua / legal: na-3244/01



LABURRAK IN BRIEF


MUGIKORRA ISILARAZI NAHI DUTE

Zinema aretoan, jatetxean edo museoan sartu eta mugikorren "bip, bip" soinuarekin nazkatuta zaudela? Ez da harritzekoa! Nonahi jotzen dute eta, askotan, norberaren mugikorra dela konturatu eta poltsa handian harrapatu orduko, minutu luzeak pasa eta inguruko guztiak aztoratzen dira. Teknologiaren garapena muturrera eramateagatik ordaindu beharreko prezioa da.

Aurrerantzean horrelako egoerak gero eta gutxiago gerta daitezten, ideia berria plazaratu dute ikertzaile japoniarrek. Mugikorraren soinurik entzun nahi ez den areto edo egoitza mugikorren uhinak xurgatzen dituen materialez inguratuko dute. Ikertzaileek uhinak xurgatzen dituen nahasketa prestatu dute eta, egoitzaren arabera, egurrari edo beste edozein materialari gehitzeko asmoa dute. Ez dirudi batera ideia txarra denik; baina, gehiegi hedatzen bada, ez ote da telefono mugikorren funtzioa murriztuko?

TIME TO SHUT THOSE MOBILE PHONES UP

Are you pissed off with continuously hearing the "ring, ring" of mobile phones in museums, restaurants or at the cinema? I'm not surprised! The damn things go off any and everywhere, and worse still, sometimes it's yours and it takes you ages to find it as you dig around your pockets and bag and everybody in the place is going mental! Suppose it's just the price we have to pay for technological advance. Well, Japanese researchers (who else!) have hit upon a way of putting a stop to all of this. They have come up with a kind of "anti-mobile phone" material to cover rooms where people don't want mobile telephone signals to reach. You just add the mixture to wood or cement or whatever the material is and adios to bothersome mobile phone interference! Doesn't sound like a bad idea, does it? But what if use of the stuff gets put of hand? It defeats the purpose of mobile phones in the first place!



THE DOORS, ITZULERA.

Aurtengo udan Harley Davidson motorraren 100. urtea bete da eta ospatzeko antolatuzen kontzertu batek The Doors taldea bildu zuen berriro eskenatoki baten gainean The Cult taldeko Ian Astbury zelarik Jim Morrisonen tokia hartu zuena. Dirudienez emaitza ona izan zen eta ondorioz kontzertu hura bakarra ez izatea erabaki dute gainontzeko kideek. The Doors taldearen webgune ofiziala ikusita baieztatu daiteke banda berriro martxan dagoela Ian Astbury kide finko duelarik. Berarekin batera, Los Angeles-en abiatuko dute bira berria Ray Manzarek, Robby Krieger eta John Densmore taldekideek irailaren 6an.



RETURN OF THE DOORS

The Harley Davidson Motorbike was a 100 years old this summer and The Doors, with the Cult's Ian Astbury taking Morrison's place, got together again at a gig marking the celebration. The concert must have gone down very well because the band members have decided to repeat the experience. A quick glance at the band's official web page, where Ian Astbury appears as an official band member, will quickly clear up any lingering doubts. Him and original members Ray Manzarek, Robby Krieger and John Densmore kick off their tour in Los Angeles on September the 6th.



SEPULTURA BERTSIO LANETAN

Sepultura brasildarrak lan berria prestatzen ari dira dagoeneko. Disko berria osatuko duten kantuak ez dira berriak idatziak izango bertsiokak baizik. Besteak beste, Janes Adiction, Devo, U2 eta Public Enemy taldeen moldaketak aurkituko ditugu Sepulturaren disko berrian. Dena den, Belo Horizonte-koen konposaketa berriek ez dute luze itxaron araziko zaletua, egun estudioan konzentratuta daude lan berria osatuko duten abestiak grabatzen eta espero da urtea amaitu baino lehen izatea plazaratuta.

SEPULTURA WORKING ON VERSIONS

Brazilian group Sepultura are busy working on their latest album. The songs that make up the album are all versions this time round. They cover songs by the likes of Janes Addiction, Devo, U2 and Public Enemy. However, those of you eager for some new original material needn't fret. Belo Horizonte's tunes are being worked on in the studio and should see the light of day before the year is out.

THE SONGS THAT MAKE UP
THE ALBUM ARE ALL
VERSIONS



MATRIX RELOADED

Matrix-ek ez du esan bere azken hitza. Akatsetatik ikasi, reseteatu eta Neo, Trinity eta mundu askekoiei kaña emateko prest dago. 2003. urterarte itxaron beharko dugu. Matrix-ko agenteek ez dute etsi, Sydneyko raskazielo artean eszena ikusgarri eta arriskutsuak filmatu dituzte, Trinity-k kompetentzia izango du... Nola dakigun guzti hau? Matrix Reloaded-en zatitxoak jada ikusi ditugulako, whatisthematrix.com web orri ikusgarrian. Eta orain zein pilula aukeratzan duzu, urdina ala gorria?

MATRIX RELOADED

Matrix hasn't said its last word. It has learned from its mistakes, re-gathered itself and is just dying to get stuck into Neo, Trinity and a whole lot of other heads. We'll have to wait till 2003 to see it though. Matrix's agents have not given up and they have filmed a seriously spectacular sequence that dances in and around the skyscrapers in Sydney. Trinity's got some competition on his hands... Bet you're asking yourself how we know all of this stuff? Why, we saw it in Matrix Reloaded, so we did. Just go to the highly visual whatisthematrix.com web page. And now, just what pill do you want, the blue one or the red?



IF YOU'RE LUCKY YOU COULD END UP GROOVING TO THE LATEST IN ELECTRONICA IN HELSINKI



SPAMAK TELEFONO MUGIKORRETAN

Spamak nahi gabe jasotzen diren mezuak, nardagarriak eta nahasgarriak izan ohi dira posta elektronikoa erabiltzen dutenentzat. Aurrerantzean, berdin ibiliko dira telefono mugikorren erabiltzaileak ere. Erresuma Batuan, behintzat, gero eta mezu gehiago bidaltzen dira telefono mugikorretara. Kontsumitzaile-elkarteek eginiko azterketa baten arabera, datorren urtean marka-etxeen %56k erabiliko omen du bide hori publikizaterako. Spamak zenbat hedatzen ari diren ikusita, Europako Batasunak legedia egokituko du, eta mezu horiek jasotzailearen baimenarekin soilik bidali ahal izango omen dira; telefono-konpainien kalterako, noski.

MOBILE PHONES SPAMMED

Spam infested e-mails are no secret to anybody who uses electronic post. Mobile phone users will soon become very aware of the world of spam shortly. At least that's the story in the UK where more and more messages are being sent to mobile phones. According to surveys carried out by Consumer Rights Associations, 56% of big brand name companies will be using this method of advertising by next year. The EU, in an attempt to somehow control spam, says it is going to introduce new legislation that only enables spam to be sent with the receivers permission. This, of course, is to the detriment of the telephone companies. Wouldn't say they're too happy about it!





WWW.KONEISTO.COM 2002

Jada aurkitu dezakegu sarean aurtengo Koneisto jaialdiaren webgunea. Musika Elektronikoaren inguruan ospatzen den suomitar jaialdi honen webgunea urtero aldatzen dabilta, beti berdina mantendu beharrean, zortea dugu! Urtero gero eta gauza ikusgarriagoa egiten baitute, internetek eskaintzen dizkigun baliabideak izugarri ongi profitatuz. Aspaldian aipatu genuen orriotan 2000. eta 2001. urtetako webguneen abangoardia eta lilura, aurten naturzale jarri dira, beti ere paisaia berezi eta bakana sortuz. Joan zaitez, etzan belarretan bazeunde eta sentitu bizitza zure inguruan sortu eta hazitzen. Zorte pixka batekin Helsinkin bukatuko duzu musika elektronikoaren azkenengoa dastatzen.

WWW.KONEISTO.COM 2002

The web page for this year's Koneisto Festival is there waiting for you all to visit it. This page for the Finnish festival celebrating all things electronica changes every year, and boy is that good news! This stuff just keeps getting more and more spectacular. They really make good use of the advantages offered by the net. We've spoken about the wonder of their web pages for the editions in 2000 and 2001 in these pages before. This year they've gone all nature-loving, but with some really special and singular scenery. Pop along to, flake out on the grass and feel life spring into being around you. You never know, if you're lucky you could end up grooving to the latest in electronica in Helsinki.





energia
nuklearra
behar dugu?




zenbateraino
babesten
dugu
natura?

zure galderei
erantzuna

zientzia.net



www.zientzia.net



Aspaldi honetan, euskal gatazka jaun eta jabe bilakatu da hedabide guztietan. Hala ere, horrenbesteko informazio-fluxuak ez du komunikazioa ahalbidetu, eta euskal auziak ezezaguna izaten jarraitzen du.

Liburu hau euskal gatazkarekiko trataera informatiboaz inoiz egin den ikerketa handienetik sortua da. 1998-2001 urtealdi zalapartatsuan egindako lanaren emaitza duzu hau, EHU-UPVko ikerketa talde zabal batek egin duen azterketa sakona: Espainian zein Euskal Herrian erreferentziazat hartzen diren 11 egunkari aztertu dituzte (1.500etik gora ale), baita CIES enpresak egindako iritzi-azterketa zabaletik –3.000 inkesta estatu osoan– ateratako ondorioak ere.

Egileen ustez, une honetan bizi dugun egoera mediatikoa benetan larria da. Gehiago ere esan daiteke: bide beretik jarraituz gero, inkomunikazioaren atarian egon gintezke.




elektronikaldia 2002

catching your breath
arnasa hartuz

www.elektronikaldia.org

testua / by: asier leoz



Udazken lehen ukituak berriz ere doinu elektronikoek ekarriko dituzte, batzuk dantzarako sortuak eta beste batzuk ez. Urriari Elektronikaldiak laugarren urtea beteko du bidean ikasitakoari helduta eta, hori bai, aurrekontu murrizteari aurre eginez. Besteak beste Txarli Brown eta Javi P3z antolatzaile dituen jaialdia aurrera ateratzea ez da erraza gero eta ezagunagoa den arren. Iazko marka komertzial handi bat ez dago jada beraiekin eta honek arakatze lanak are latzagoak egin ditu. Dena dela, Elektronikaldiak eskaintza zabala dauka aurtengoan ere, egun argiz egin beharrekoari gauari bezain besteko garrantzia emanez eta iaz bezala Donostiako Kursaal eta Egia Gaztesena aretoen artean banatuta. Kontzertuei dagokionez, CHICO Y CHICA taldeak prestatuta daukan hiru orduko kabareta gogo biziz espero dute antolatzaileek. Bestalde, TIM LOVELY, iaz oso disko aipagarria egin zuen sortzailea, gurean arituko da ere, MARIANO & NICODEMUS bezala. Azken hau New York inguruan bazterrak astintzen dabiren talde interesgarrietako bat da. Zuzenean bi disko jartzaileek perkusio jole baten laguntza dauka eta P3z-en hitzetan auzoko Kruder & Dorfmeister batzuk bezala aurkeztu daitezke, latin ukitu batekin. Kontzertuaren eta performancearen arteko mugak urtuta, ikusteko modukoa izango da ere PUSS talde suediarra, musika egiteko Game Boy tresnak erabiltzen dituen instrumentu bezala. Egitarau zabala, Dj sesio, lehiaketa eta zenbait Showcase barne, baina iazkoa baino askoz arinagoa. Aurten kartelaren fondoa ez da erabat estalita egongo izenekin, eta hori, diru kontuak alde batera utzita, bilatutako zerbait izan da 2002ko Elektronikaldiak arnasa har dezan.

The first signs of Autumn shall once again be accompanied by electronic melodies, some made for dancing and some not. Elektronikaldia is four years old in October and is still learning with each new edition. This year they've a smaller budget. Even though the festival is becoming more and more known, it's certainly not easy for the organisers Txarli Brown and Javi P3z to put things together every year. They haven't got the big brand name sponsorship they had last year and this means they've had to be more choosy than ever. Having said that, there's a wide variety of acts on offer both during the day and at night and these acts will, like last year, be appearing at the Kursaal and Gaztesena in Egia. As regards the concerts, the organisers are really looking forward three hour cabaret cooked up by CHICO Y CHICA. TIM LOVELY, who brought out a great record last year, and MARIANO & NICODEMUS, part of a group that have really been shaking it up around New York, are also on the bill. A couple of DJs aided by a percussionist will be strutting their Latin based stuff live. P3z considers them to be the local Kruder & Dorfmeister. The Swedish group PUSS, who tear down the walls between music and Performance, are ones to look out for also. The use of Game Boy gadgetry to make music. The programme is a varied one of DJ sessions, competitions and showcases, but it's a lot slimmer than last year's one. This year's poster is certainly not as choked with names as it has been in the past, and this is not purely for budget reasons; it's also to allow Elektronikaldia 2002 space to catch its breath.

elkarrizketa: javi p3z. interview

Javi P3z buru belarri dabil Novophonic-eko bulegoan oraindik lotu gabe dauden gauzetan murgilduta. Kontratazioak udan egin behar izateak ere ez du asko laguntzen artista gehienak biran direlako.

Egia da baina uda saturatuta dago jaialdiekin. Gainera musika elektronikoak udazkenarekin oso ondo dator bat nahiz eta hau ez den ikuspuntu zabalduena. Elektronika berehala lotzen da dantzarako musikarekin eta ez du zertan horrela izan behar. Izan ere musika hau jaio zenean ez zen dantzarako, eta ez zen horrela izan 80ko hamarkada iritsi arte. Dantzarako musika elektronikoa badago jakina, baina bi kontzeptuek ez dute elkarrekin egon beharrik. Musika entzuteko da ere. Elektronikaren atzean urte askotako kultura eta ikerketa lana dago.

Artista gehiegi izan al zenuten iaz?

Agian, programa oso kargatua egotea ez da ona, ezin direlako musikariak lasaitasun minimo batekin ikusi. Iaz kontzertu batzuk besteekin ukitzen ziren ordutegian estilo guztiak elkar kolpatuz oso espazio txikian. Nire ustez dj batek hiru orduko sesio bat behar du jendeari eman nahi dion mezua adierazteko.

Nola erabakitzen dira ekarri beharreko artistak?

Aurreko urtean zer izan den inportantea begiratzen dugu, argitarapenen aldetik eta sortutako oihartzuna. Gero eraso hasten dugu, aurten alde guztitara dispartu dugu: Dj Shadow esate baterako, mundu guztiaren ahotan dago, sekulako lan berria du. Gertatzen dena da artista batek asko saltzen duenean beregana iristea ia ezinezkoa izaten dela. Badago zenbait artista ez direnak inolaz ere ekarri, ez dago beraiekin kontaktatzerik. Saiatu bai baina ezin.

Elektronikaldia bakarrik artistak ezagutzen dituztenentzat dago pentsatua?

Inolaz ere. Hori ezinezkoa da, oso ondo dakigu ekartzen ditugun artista gehienak nahiko edo oso ezezagunak direla. Kuriositatea duen jenderentzat dago pentsatuta, musika maite dutenentzat. Kontua da jende askok elektronika dance musikaren zaku berean sartzen duenez, gero ez dutela hainbeste dantzarako musika topatzen. Beste batzuetan ordea bisitariak ezagutzen ez zituen espresio bide musikala topatzen ditu Elektronikaldian eta gero bere ikerketa hasten du diskoak lortzen eta abar.

Nolakoa izan zen Elektronikaldia Kursaalera eramatearen jauzia?

Oso handia. Asmoa hori da; hiriarren erdira joatea jaialdia bertan zabaldu dadin. Egia auzoan bakarrik erren gelditzen zitzaigun eta horrelako gauzak mugimendua dagoen tokira eraman behar dira. Bestalde honek aukera eman zigun egunez ere aktibitateak egiteko. Elektronikaldian gaua ez dago egunaren gainetik.

Jazzaldia gero eta gehiago ari da gerturatzen musika elektronikoaren mundura, zein da zure iritzia?

Beharrezkoa zela. Guk aurreko urteetan jarri izan ditugu proposamen batzuk Jazzaldiko antolakuntzaren mahaigainean baina azkenean ez dira atera. Orain berriz ematen du haize hobea dagoela norabide horretan.


Duela urte batzuk Hip hop-a sartu zen Jazzaldian...




Sartu eta atera, egia esan. Badago Hip hop musikala, instrumentalki garatua eta badago beste bat oso

planoa, hizlariaren berriketa besterik ez dena betiko marjinaltasun topikoarekin. Hau aspergarria gertatzen zaio musika zaleari, jazz zaletuari agian are gehiago. Hip hop kontuan oraindik oso atzean gaude. Salbuespenik badago baina orokorrean... ez luke horrela izan behar, izan ere Euskal Herritik oso gauza onak irten beharko lirateke.

Hizkuntza dela eta?

Bai, euskarak daukan soinua ona da musikatzeko. Ingelesak bezain besteko malgutasuna dauka. Gainera, bertso tradizioak asko lagundu beharko luke. Inon ez dauden hitzak asmatzea metrikarekin eta musikarekin bat etortzeko... hori oso gauza handia da eta gainera gurea.





Javi P3z is rushing around the office at Novophonica as he tries to tie all the last details up. The fact that they have to contract the groups in Summer doesn't help as most of the artists are on tour.

That's true, but Summer is chock-a-block with festivals. And electronic music is really good for Autumn, although not too many people think that way. People automatically label electronica as dance music and that's not exactly the truth. I mean, when people first started playing this type of stuff, it wasn't dance music at all, and it wasn't until we got to the 80s. Of course you have electronica you can dance to but there's no need to mix the two different concepts here. There are many years of research and culture behind electronica.

Did you have too many artists on the line-up last year?

Perhaps. Having too many people on the bill is not good because people can't go along and take their time to watch the musicians. A couple of the concerts last year coincided time-wise and you had loads of different styles in one small space. I personally feel that a DJ needs at least three hours to get his message across.

How do you decide on the line-up?

We basically take a look at what have been the most important releases of the year, and what the public's response has been. When we get down to work, we've cast our lines everywhere this year: DJ Shadow is an example of this, everybody is on about him because of his brilliant new release. The problem is that when an artist starts selling by the truckload, it's almost impossible to get in touch with him. There are a couple of acts we aren't bringing because we've had no way of contacting them.

Is Elektronikaldia only for those in the know?

No, not at all. There's no way you can do that. Most of the groups we bring are either quite or very unknown. The festival is for the curious type, for music lovers. The funny thing is that those who lump electronica in with dance music don't find that much dance music when they come along. Other times, the visitor comes across new forms of musical expression in Elektronikaldia that they'd never seen before and they go then and do their own research, they start buying records and so on.

What was it like for Elektronikaldia to take the step to a venue like Kursaal?

That was a huge step for us. That's where going: we want the festival to spread into the heart of the city. Holding everything in Egia was a bit of a drawback insofar as this type of festival has to be where things are happening, you know, movement. It also gave us the chance to do things during the day. Night doesn't come before day in Elektronikaldia.

Jazzaldia is starting to become more interested in the world of electronica, what do you think of that?

It was hard to happen. We've gone to the Jazzaldia organisation with quite a few proposals over the last few years but nothing has ever come of them. It seems that that could soon change.

Jazzaldia had Hip Hop on the bill a couple of years back...


Yeah, on and off to be more precise. There are two types of Hip Hop: one that's more developed musically and another more linear type that is more for a clichéd singer to spout on about how he's being beat up on. That can get boring to the fan, and probably even more so to a fan of Jazz. We're still way behind as far as Hip Hop is concerned, although there are some exceptions...it shouldn't be like that, there should be some really good stuff coming out of the Basque Country.

Because of the language?

Yes, the sound of Basque is really appropriate for music. It's as flexible as English. As well as that, it's also got the tradition of sung verse, that's bound to help. To come up with words that exist nowhere else and fit them in with the metric and the music...that's amazing and it's ours.


«NIRE USTEZ DJ BATEK HIRU ORDUKO SESIO BAT BEHAR DU JENDEARI EMAN NAHI DION MEZUA ADIERAZTEKO»





Salamanca pasalekua, 3 - 20003 Donostia - 943 42 40 40

elkar poesia | bilduma berria



Atea io du esku batek eta zero
la zentzua bizi...
...
Ander
Iturriotz



Joan Mari
Irigoien



Gure artean
euskaraz



**Bizkaiko Foru
Aldundia**

Kultura Saila

**Diputación Foral
de Bizkaia**

Departamento de Cultura

50

aidanez the 50th zinemaldia

Izenburuan esatearekin nahikoa da. Aurtengo edizioaren zenbaki borobilak hamaika zeresan eta imintzio sortuko ditu. Lazko Zinemaldia amaitu aurretik, begi guztiak aurtengoan jarriak zeuden. Eta aurtun bereziki, hainbat hiritar eta kanpotar zinearen inguruan antolatzen den zirkora hurbilduko da. Politiko eta patrozinatzaileek euren bikoteak etxetik ateratzeko aitzakia izanen dute eta betiko ergelak betiko tokietan bilduko dira. Zineak, beste edozein sorkuntza iharduerak baino gaitasun handiagoa du anormalak biltzen. Espero dezagun, edizio honen berezitasunak Zinemaldiak berez duen edo izan beharko lukeen izaera popularrari kalterik ez egitea. Guztiok kontent uztea zaila bada ere, urrezko ospakizunekin itsutu gabe, azken urteotan lortu den maila eustearrekin nahikoa litzateke. Ohiko sailez gain, (Ofiziala, Zabaltegi, Made in Spanish...) aurtengoak 3 retrospektiba nagusi ditu.

50 de los 50

Hamarkada hartako 50 film esanguratsu aukeratu dituzte ziklo honetarako. Aktore, zuzendari edo beste arrazoiengatik filmeez erlazio zuzena izango dute Donostiako Zinemaldiarekin. «Nahi ta nahiezkio zikloa superbibentziarako». Hitz horiek definitu dute.

volker schlöndorff

Zuzendari garaikideari eskeintzen zaion zikloan, aurtun "El tambor de Hojalata" liburua zine pantailetara eraman zuen zuzendari alemaniarrari tokatu zaio. Duela bost bat urte La Habanako zinemaldian omenaia egin zitzaion eta orain Donostian ikusi ahal izango da bere filmografia.

michael powell

Zuzendari europarren artean klasiko ezkutu bat. "El Fotógrafo del pánico" (Peeping Tom) eta beste hainbat harribitxi ikusi ahal izango ditugu zuzendari britaniarrari eskeinitako zikloan. Eta amaitzeko: Ezagutzen al duzue aurtengo edizioko afitxea gustoko duen norbait?

The title is enough. This year's edition's nicely rounded off number is bound to have everybody's tongue wagging. Everybody was tuned into what was going to happen at this year's festival before last year's edition had even finished. This year will especially witness a large influx of local and foreign visitors. Politicians and sponsors will eagerly snap up this chance to get their partners out of the house and the usual airheads will meet in the usual airhead places. Cinema, more so than any creative art form, has the uncanny ability to draw schmucks. We therefore hope that this year's edition of Zinemaldia will not damage the true popular spirit it's supposed to have. Even though it's very difficult to keep everybody happy, let's hope they aren't blinded by the fact that it's celebrating it's fiftieth birthday. If they can maintain the standard shown over the last few years, that will be enough. There are three main retrospectives on offer this year as well as the usual sections (Official, Zabaltegi, Made in Spanish...)

50 from the 50s




50 significant films have been chosen from the fifties for this cycle. The films all have a special connection to the San Sebastian Film Festival, be it down to the actors, directors or for whatever other reason. «Cycle necessary for survival» is how it has been defined.

volker schlöndorff

The section dedicated to contemporary directors will feature the German director responsible for bringing the book "The Tin Drum" to the big screen. He was paid homage at The Habana Film Festival five years ago and this year his films will be on show in Donostia.

michael powell


A hidden classic amongst European directors. We'll be able to see "Peeping Tom" and other gems in the cycle on this English director. A question to finish up with: Does anybody know of anyone who actually likes the poster for this year's edition?



THE BALDEO€
testua / by: koldo almandoz



what does it mean?



testua / by: kirmen uribe

Art done on the information net is called Net-Art. The poetess Elizabeth Macklin has gone and done something just that, but in her case words are the tools used. She is the authoress of two books published by Norton Publishers: "A Woman Kneeling in the Big City" and "You've just been told". She received the Lowell Poetry Travelling Scholarship grant which basically pays people to pack their bags and head off abroad on a poetry-writing quest. This is exactly what she did. She packed her bags and headed for... Bilbo. No sooner had she touched down than she was off to get Basque classes in AEK. Ever since then she has been a steady visitor to these shores. She wrote the poem accompanying this text, based on chat-line experiences, in Basque and English. On the one hand she captures the moment when the conversation took place, and on the other she goes into the relationship between languages. She likes playing around with translations, and she really focuses on the meaning of what is being said as well as tuning into the reader's stance. She loves to translate the Basque to English and lose herself in the different musical tunes created by those translations.

This poem was first published in Barrow Street magazine, 2001, in New York.

WHAT DOES IT MEAN?

Scenes in Translation

1

[Herkide bat duzu.](#)

You've got a fellow-countryman here.

2

[Maitasuna hitzetan baino ekintzetan ikusten omen da.](#)

They say love shows in actions rather than words.

...

[Horretarako dira txat-gelak ezta?](#)

It's what rooms are for, or no?

[Omen.](#)

Or they say.

[Erabilera hori eman diegu, bai.](#)

We've used them for that, yes.

3

[Tipo batek hizkuntza eta kaosaren arteko](#)

[harremana azaldu nahi izan zigun jardunaldi batzuetan...](#)

A fellow was intending to tell us about the relation between chaos and language over a few lectures...

[Hizkuntzaren arauak zenbateraino diren kaotikoak](#)

[azaldu nahi zigun](#)

He wanted to explain how far the rules of language are chaotic

[eta hizkuntzaren kaosa zenbateraino](#)

[zegoen araututa.](#)

and how far the chaos in the language did have its rules.

[Nahastu egin zen amaieran.](#)

He got tangled up toward the end.

...

[WEBMASTER: Kaosaren adibide garbiena txateoak dira.](#)

WEBMASTER: The clearest kind of chaos is a chat session.

...

[Hori bai, baina saiatzen ari gara.](#)

Absolutely, but we are trying.

...

[Bai, eta lortzen dugu.](#)

Yes, and we do get there.

4

Baina: Gauza berdina gertatzen al da hizkuntzatan, kaosean baino?

But: Does the same thing happen in language as in chaos?

Nik uste dut neurri batean baietz...

I think so, in some measure yes...

Azken finean

elkar ulertzen dugu.

When all is said and done

we understand each other.

eta badirudi ez dagoela

araurik hori lortzeko.

and it seems there's not a rule

on earth for achieving that.

5

Geroago orden bat ikusten al da?

Later on does an order appear?

Bai, baina aldi berean

desorden handiagoa da geroago.

Yes, but at the same time

a greater disorder comes later.

Beno, horretarako jainkoak inbentatu zituzten.

Well, it was for that that they invented the gods.

bai, baina orain nahi duguna

jainkoen mailara iristea da

Yes, but now what we want

is this stature of gods

eta guztiaren izaera ezagutu

eta kaosa ordenatu.

to get to know everything's being

and order the chaos.

Ezinezkoa da hori, baina.

That's impossible, though.

Bai, baina oso gutxik dakigu ezinezkoa dela.

Yes, but very few of us know that.

ENVOI

Jo, "hallazgo" bat da "Webmister" hori.

Jeez, it was a coup when you called him "Webmister".


Bai, hau nahikoa hurbildu da jainkotasunera.

Yes, there's one who's well on his way to godhood.



Net-Art izena ematen zaio sare informatikoan egiten den arteari. Halako zerbaitegin du, hitzekin baina, Elizabeth Macklin poetak. Bi poema-liburu ditu idatziak, biak ere Norton etxean: "A Woman Kneeling in the Big City" eta "You've Just Been Told" izenekoak. Lowell Poetry Travelling Scholarship beka jaso zuen, alegia, atzerrira bidaia egin eta poesia idazteko urtebeteko beka. Nora joango eta Bilbora joatea deliberatu zuen, eta AEK-n eman zuen izena, euskara ikasteko. Geroztik aldian aldian egiten du ostera Euskal Herrira. Ondotik datorren poema euskaraz eta ingelesez idatzi zuen txat bidez izaniko elkarrizketak oinarri harturik. Alde batetik internet bidezko elkarrizketaren momentua bera jasotzen du poeman eta beste alde batetik hizkuntzen arteko hartuemana ere badago. Gustuko du itzulpenarekin jolas egitea, eta arreta jartzea esanahietan eta irakurlearen harreran; euskarazkoa ingelesez jarri eta sortzen diren esanahien dantzetan bere gogoia murgiltzea.

Testu hau lehenbiziko aldiz Barrow Street aldizkarian eman zen argitara, New Yorken, 2001 urtean.



erakusketak - exposiciones

ordutegia / horario
10:30 - 14:00 / 16:00 - 20:30
asteartetik larunbata arte / de martes a sábado

margazkiak
pintura de cámara
2002.07.04 - 2002.09.28



rosa valverde
2002.07.17 - 2002.08.31



letagin txuri white fang



Beti ere pentsatu izan dugu Jack Londonek sortutako txakurtxo hau azkarra eta fidela zela. Hona hemen bertso atipiko bat, fidela eta xamurra bai baita bihotzbera eta intentzio zintzo beterikoa ere, baino letagin honek ez dauka azkartasunik, ala bai?

Dario Adanti berak zera esaten du: «Orri hauexek ez ditugu Jack Londonen pertsonaiari eginiko burla bezala ulertu behar, baizik eta desprendimendu askea moduan, eta ekintza aske oro bezala ergelkeriz eta zentzu faltaz beterikoa».

1994. urtean sortutako Kolmillo honen bilduma honetako orriak Buenos Aireseko Página/12 egunkariaren Sátira/12 gehigarrian argitaratutakoak dira ia bere osotasunean. Umore surrealista eta ergela logika pisutsuenarekin nahasten dira komiki honetan. Kolmillok bizitako abenturak irrigarriak dira oso baino albuntxo honek daukan bitxikerietako bat zera da: Kolmillok bizitako gag bakoitzeko (bat orrialdeko) tiratxo txiki bat aurkitzen dugu orrialdearen bukaeran eta bertan oso pertsonaia xelebreak: La Pulga Domínguez, El Hueso Alberto, Número Town eta Filisberto Letraset, non autoreak bere txisterik grafikoek egiten dituen, hezur, arkakuso, hizki eta zenbakien irudi ikonikoa erabiltzen dituelarik txistea sortzeko.

Hona hemen ba Inréves edicionez bere Medio Muerto bilduman argitaratutako azkenengo bitxikeria, ez galdu bistatik ez editoriala ezta bilduma ere.

Baietz Kolmillo Blanco ti-ta batean irakurri!

We've always thought the that the dog brought to life by Jack London was a clever and loyal little beast. We now give to you a not so typical version where our furry friend is still loyal, compassionate and he doesn't have a bad bone in his body, but is old toothy quite as clever as he used to be?

This is what Dario Adanti has to say on the matter: " Nobody should take these few pages as taking the piss out of the character created by London. It's more of a loose interpretation of the story, and like any other act of this type, it's very doesn't make any sense and is totally idiotic.



This version of Fang was first published, almost in it's entirety, by the Pagina/12 newspaper in its supplementary magazine Satira/12 in 1994. Surrealistic and idiotic humour go hand in hand with the most logical reasoning in this comic. Old Fang's adventures are hilarious, but the funny thing about this little comic book is that for every one of Fang's escapades (one per page), we're treated to little strip at the end of each page where characters like La Pulga Dominguez, El Hueso Alberto, Numero Town and Filisberto Letraset come up with the most graphic of jokes using iconic imagery of bones, fleas, letters and numbers.

So, you have been informed of the latest publication by Inréves ediciones in their Medio Muerto collection. Don't lose track of this collection or the editorial.

Bet you just gulp this one down.



testua / by: txo!?



Angel Borrego arkitektoa da. Madrilgo arkitektura eskolatik, masterra Princeton-go unibertsitatean, Fullbright bekaduna. Maixu lanetan dago New York-eko Pratt unibertsitatean eta baita Alikantekoan ere. Bere lana Europa eta Ameriketako erakusketetan azaldu du arkitekto eta artista bezala.

Angel Borrego belongs to the Madrid Collage of Architects. He did his Master at Princeton University. He has also received the Fullbright Scholarship. He works as a professor at The Pratt University in New York and also at The University of Alicante. His work, both as an artist and architect, has been exhibited throughout Europe and The Americas.

Hasiera batean proiektuaren enkarguak kontuan hartzen zuena bezeroaren bulego berria zen soilik. Bulego honen egitekoa ikerketa eta inteligentzia zerbitzuak ematea izangoenez, bulego ideal bat nahi zuen: oso txikia, ezkutuan, basoak kamuflatua, baina inguruko bista nagusiekin, zelatan egon ahal izateko moduko leihoa, "Nantucket-eko alargun baten leihoa" bezalakoa.


Bere etxea, aparteko eraikuntza gisa, proiektuan sartzeko aukerari buruzko hizketa, azkenean erosi zen orube hark zuen edertasun naturala zela eta sortu zen. Etxeak ia erabat inguratzen du bulegoa, etxeko espazioaz kamuflaje gisa baliatzeko moduan. Etxearen aurrealdeak bulegora ematen du, bildu eta apaindu egiten du bulegoa, bista gautarrean hauteman dezakegunez. Etxeko usantza da bulego barruan egiten den lanaren kamuflajea...

Diseinu prozesua etxe arrunt baten diseinuarekin kamuflatu zen. Hori bai, patio bat balitz bezala, etxearen barneko erdigune sekretua marraztuta. Zirkulazio sistemaren zatiak, eskailerak adibidez, behar zena baino zabalago marraztu ziren, gero, obran, bi eskailera bereizitan banatzeko, bata besteari erreplika eginez. Honek erabat ez berdinak eta berdintsuak diren bi zirkulazio sistema izatea ahalbidetu zuen.

Proiektuaren planoak beste arkitekto batzuen planotan oinarritu ziren, jatorrizko lan formal adierazgarriegi bat egiteko tentazioa saihesteko eta bezeroaren lanaren zati handi bat (farmazia patenteen lapurreten ikerketa, faltsifikazio artistikoa...) oinarritzen den kopiaren praktika egiteko. Proiektu hau beste proiektu batzuen osagai eta formen collage bat da. Kopia proiektuari gardentasuna emateaz gain, proiektua bera babesten du.

Bulegoaren itxitura etxe bat edo, hobe esan, minbizia bezala tamainaz eta gaitasunez hazi den espazio zahar bat (etxeko pribatuena) barruan izateraino zabaltzea baiditza ulertu behar al da diseinu hau? Zein da proiektuaren fatxada? Ikuste-loturen, babesaren, kontrol eta mehatxuen jokoak eta publiko eta pribatuaren arteko lotura irauliak, proiektu hau espazioen eta zaintza erlazio garaikideen izaeraren azterlan bihurtzen dute.

HOUSE



a house in princeton princeton-go etxea



The original plans for this project were only for a new office for a client who works in research and intelligence. He wanted what he considered to be the ideal office: very small, hidden away, camouflaged in the woods but with views of the surroundings, something like a "Nantucket widow's window" where he could keep a close eye on everything from.

The idea of adding a house, as a separate building, to the project was touched upon because of the sheer beauty of the site to be built on. The house almost completely surrounds the office. This turns the household space into a type of camouflage. The house is a front for the office, it covers and decorates it. The views at night time really highlight this aspect of the project. The domestic use of the house serves as camouflage for the work being carried out on the inside...

The design process was hidden in the design of a normal house and the inner centre appeared as an inner patio. Parts of the inner circulation system such as the stairs were drawn wider than they actually were. These were later divided in two when work on the house started and, thus we created two completely different systems that were a mirror image of one and other. The plans of the project were based on other projects by different architects so as to avoid the necessity of having to draw up formal original plans that might just give too much away about the project in mind. This also reflected the practice of copying in the type of work carried out by the client who investigates thefts of pharmaceutical patents and forgery in art. The project in its entirety is a collage of elements and forms from different projects. The copying is meant as a form of protection and makes the project transparent at the same time.

Should we then consider this design as one where the encasing of the office expands to the extent that it houses a home, or, should it be regarded as an old space in the house that has grown in size and power like cancer? What is the façade in this project? The play between visual connections, protection, control and threat and the possibly subverted relation between what is public and private make this a study of the nature of space and the relation of contemporary vigilance.

testua / by: ibon salaberria

A 01.04.96 NdeM title block added

REV	DATE	BY	DESCRIPTION
-----	------	----	-------------

ALEC JACK, AIA
Hartley, NJ 08531

Morrow House, Princeton

Site Plan

DRAWING TITLE

1:10	01/04/97
SCALE	DATE
1:250	ABC+NdeM
DRAWN	CHECKED

E.51.0

A

DRAWING NUMBER

REVISION

Ez da gauza konplikatua. Jokalari batek edozein irudi sortu eta bere sarea prestatzen du, zuzen eta bortitza edota alderatu eta xamur, ez da zertan pilota marra txurien artean sartu behar, baino zure arerioa harritu eta sorprenitu beharko duzu, haren eskuak izoztu eta burmuina moteldu dadin, zure sakearen ostean haren buelta dator, beste jokalariek zure irudiari kaña sartuko dio eta batek daki zeinen alde joango den abantaila.

hasten da jokoak:



A->



<B



A->



<B



A->



<B




A->



<B

akabo!

photoshop tenisa



testua / by: txo!?

jokoak / matches: www.coudal.com

Ba al daukazu ordenagailurik etxean? Interneterako konexioa? Irudiak tratatzeko programa? Galdera guzti hauei baietza eman badiezu zorionez zabilta, photoshop tennis deritzoten kirol berri honetan joka baizaitzke. Jokalari ez izatekotan, berdin berdin liluratu zaitezke ikuskizunaz.

Kirol berri bitxi honetan jokalaria (sortzaile akaso) bakoitzak geruza berri bat gehitzen dio irudiari, aurrekoak eginikoari erantzunez, osatuz, zapuztuz edo probokatuz.

Egia esanda ez dakit zergatik esaten dioten tennis; beno bai, pilota-argazkiaren joan eta etorria dela eta, baino akaso photoshop konbatea deitu beharko lukete... edo dantza, batzutan arerioek ez dute haien agresibitatea argitara ateratzen, ez dute jokoak burrukan oinarritzen eta baten irudiak bestearekin osatzen doaz, gero eta artelan finago eta osatuagoa sortuz. Snif, zein polita! Batzuen esanetan photoshop tennis ariketa bisual hutsa baino gehiago da, lan merkatu lehiakor batean diseinurako zure gaitasuna eta baliabideak erakusteko gunea da, baino tira, nik uste jendeak gehio jokatzen duela dibertitzearren, jendeak partiduak jokatzen dituzte interesgarriak direlako. Diseinu hutsagatik diseinatzen da, eztago bezerorik, ezta eskaerarik ere, bakoitzak nahi duena egiten du.

Ez dago arau finkorik, jokoak ez dauka bukatzeko momentu jakinik, bi jokalarik irudi kopurua ezarri dezakete aurretik edota batek errenditu, zein aspertu eta bertan behera utzi. Askotan jendearen bozketak erabakiko du zein den irabazle. «Partidu bakoitzean diseinatzaileek jokoaren kontzeptuaren ikuspegi ezberdinak nola erakusten dituzten ikustea liluragarria da» dio Jim Coudalek, tennis honen sortzaileetarikoa bat. Hain zuzen ere haien webgunean (www.coudal.com/tennis.html) aurkitu daitezke partidurik erakargarrienak.

Kirol berriak abantailazko pare bat ezaugarri ditu, batetik ez da izugarritzko teknologia behar, ez behintzat behin ordenagailua izanda, ez da plug-in berezirik behar ezta ordenagailu potente eta interneterako konexio azkarrik ere. Bestalde irudiak erabiltzen dituztenez hitzak erabili beharrean, mundu zabaleko edozein lekutako pertsonak jolas dezakete, haien hizkuntza zein den axola gabe.

Hum... Etxean aspertua? Tira, ez izan nagiak, hartu paper bat eta bi arkatu eta jokatzen paper tennis. Bestela? aukeratu The Balderen irudiren bat, gogoko zein gorrotagarri, eta sartuiozu esku, gu hemen gaude: info@thebalde.net

Have you got a computer at home? A connection to internet? A programme for altering images? If you've answered yes to all the questions, well then you're in luck. You can now play a new game called Photoshop Tennis. It doesn't matter if you're not a player, you'll be blown away by the spectacle all the same.

Each player in this whacky game answers the other player by adding a layer to the image sent, and in the process completes it, wrecks it or provokes the sender at the same time.

To be honest, I don't know a whole lot about tennis, well, I can cop the to and froing of the image bit... maybe they should call it Photoshop Combat... or dance. I mean, your opponent isn't always overtly aggressive. They don't take the game as a fight. Sometimes they even mix images and create something quite artful. Sniff, how touching!

This Photoshop Tennis lark is more than just visual exercise according to some. They regard it as a shop window for their design skills in a highly competitive market (it's a jungle out there men!). I personally think that most people get involved to enjoy themselves, people watch and play the games because they're fun. They design for the sake of designing. There are no customers or orders. Everyone does what they fell like doing.


There are no set rules and there is no set end to the game. Two players can stipulate the amount of images to be used before they start and you can surrender or just give up if get bored. Many times it's the people's votes that decide who the winner is. It's fascinating to observe the different ways each player chooses to express their concept of the game. So says one of the probable creators of the game, Jim Coudal. You can find some of the most spectacular games at their web site (www.coudal.com/tennis.html).

The new game has a couple of advantageous characteristics; on the one hand, once you have a computer you don't need incredible technology, any special plug-ins or a broad band connection to internet. On the other, seeing that it's imagery that's involved and not language, anybody in the whole wide world can play no matter what tongue they speak.

Hum... flaked out and bored at home? Don't be lazy. Grab a piece of paper and a couple of pencils and start playing paper tennis. Otherwise get along to The Balde at info@thebalde.net, grab any picture you like or despise and fiddle around with it. Match-ball!

There's nothing complicated about this at all, any player prepares any old image and gets ready to serve, hard and straight, or softly and to the side, there are no white-line bounds here, but you'll have to surprise and shock your opponent, freeze their hand and slow down their brain, because their shot will come straight back at you, the other player's gonna mickey around with your image and who knows what way the game will swing.

photoshop
tennis



the game starts:



A->



<-B




A->



<-B



A->



<-B



A->



<-B



A->



<-B

enough!

testua / by: i.b.m.

